

## **HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2016/2017 ikasturtea**

### **HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK BARNERATZEN DITUZTEN IPUINEN GARRANTZIA HAUR LITERATURAN**

**Egilea: Patricia Pardo Miguens**

**Zuzendaria: Francisco Javier Rojo Cobos**

**Leioan, 2017ko irailaren 13an**

## AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala.....	5
1.1.Begirada bat Haur Literaturaren historiari.....	5
1.2.Hezkuntza Premia Bereziak Haur Literaturan agertzearen garrantzia.....	6
1.3.Elbarritasunak barneratzen dituzten ipuinak aukeratzeko irizpideak .....	9
1.4.Elbarritasunak barneratzen dituzten ipuinen sailkapena.....	11
2. Metodologia.....	13
3. Lanaren garapena: Ipuinen analisisa .....	13
3.1. <i>Catalina, el Oso y Pedro</i> .....	13
3.2. <i>Cierra los ojos</i> .....	15
3.3. <i>El grillo Benito</i> .....	16
3.4. <i>Superhéroes</i> .....	17
4. Emaitzak eta ondorioak .....	19
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	22
5.1.Aztertutako ipuinen erreferentzia bibliografikoak.....	22
5.2.Oinarrizko erreferentzia bibliografikoak .....	22
5.3.Aurkitutako elbarritasunak barneratzen dituzten ipuinen bibliografia .....	25

## HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK BARNERATZEN DITUZTEN IPUINEN GARRANTZIA HAUR LITERATURAN

Patricia Pardo Miguens

UPV/EHU

Haur Literaturaren historian zehar, elbarritasunen irudia asko eboluzionatu da. Perrault, Grimm anaiak eta Andersen autore garrantzitsuen ipuinetan jada agertzen zen elbarritasuna konpentsazioen bat behar duen gabezi bezala irudikatuta. Gaur egungo Haur Literaturak gai hau ikuspuntu baikorrago batetik bideratzen du, hartzaileei behar bereziak dituzten pertsonak onartu zein errespetatzeko beharra ulertaraziz. Tamalez, elbarritasunen trataera egokia bermatzen ez duten ipuinen ehunekoa oraindik handiegia da. Lan honetan zehar literatura mugimendu honen garrantzia azpimarratuko da eta hainbat argitalpenen analisi kualitatiboaren bidez, gai hau jorratzen duten ipuinen hautaketa egokia egiteko irizpide batzuk bermatuko dira.

*Haur Literatura, ipuina, elbarritasuna, irudia, onarpena, garrantzia, irizpidea*

La imagen de la discapacidad ha ido evolucionando a lo largo de la historia de la Literatura Infantil. Ya presente en los cuentos de grandes escritores como Perrault, los hermanos Grimm y Andersen, la discapacidad era presentada como un defecto con necesidad de cierta compensación. La literatura infantil moderna enfoca este tema desde un punto de vista mucho más optimista, dando a entender a los receptores la necesidad de aceptar y respetar a las personas con necesidades especiales como a cualquier otra. Desgraciadamente, aún es grande el porcentaje de cuentos infantiles donde la discapacidad no es tratada debidamente. A lo largo de este trabajo se expondrá la importancia de esta tendencia literaria y se darán unas pautas para la correcta elección de estos cuentos por medio de un análisis cualitativo de varias publicaciones.

*Literatura infantil, cuento, discapacidad, imagen, aceptación, importancia, criterio*

The image of disability has evolved throughout the history of children's literature. Already present in the tales of great writers such as Perrault, the Grimm brothers and Andersen, disability was presented as a defect in need of certain compensation. Modern children's literature focuses on this issue from a more optimistic point of view implying the need to accept and respect people with special needs as any other person. Unfortunately, the percentage of children's tales where the disability is not treated properly is still too high. Throughout this work, the importance of this literary trend will be exposed and guidelines for the correct choice of these stories through a qualitative analysis of several publications will be given.

*Children's literature, tale, disability, image, acceptance, importance, judgement*

## Sarrera

Gradu Amaierako ikerketa lan honetan Hezkuntza Premia bereziak barneratzen dituzten ipuinak aztertu dira, zehatzago, Haur Hezkuntzako ikasleentzat zuzenduta daudenak. Izan ere, gaur egun, ikasle guztien inklusioa eskolen helburu nagusi bat izanda, egokiak diren materialak eskura izatea ezinbestekoa da eta ipuinak helburu hori lortzeko oso egokiak izan daitezke, bai zailtasun bereziak dituzten hurrek baita ez dituztenek ere elbarritasunak errespetatzeko eta onartzeko baliogarriak direlako. Gauzak horrela, zailtasunak dituzten haurren beharrak asetzeko zein haien inklusioa bultzatzeko Haur Literaturak duen garrantzia azpimarratzea zein zailtasun bereziak barneratzen dituzten ipuinen egokitasuna zehaztea dira lan honen helburu nagusiak.

Guzti hau lortzeko, lehendabizi, gaiari buruzko informazioa jaso da zenbait autoreen iritziak aztertuz. Horrela, Haur Literaturaren historiari erreparatu egin da Hezkuntza Premia Bereziak dituzten haurren irudia nolakoa izan den aztertuz. Horrez gain, literatura mota honen onurak zein gai honen joraketaren garrantzia azpimarratu da, baita ipuinen balio terapeutikoa ere: biblioterapia. Amaitzeko, gai hau lantzen duten ipuinen hautaketa egokia egiteko zenbait irizpide bermatzen dira eta gaiaren trataera zein autoreen ideiak kontuan hartuz, ipuin hauen sailkapen bat aztertu da.

Ondoren, elbarritasunen bat barneratzen duten ipuinen bilaketa txiki bat planteatu da eta aurkitutako ipuinetatik 4 hautatu eta haien azterketa kualitatiboa egin da, betiere, autoreen esanak kontuan hartuz. Ipuinen analisisia egin ostean, ondorioetan, analizatutako ipuinen ezaugarri komunak zehaztu dira, ipuin hauen egokitasuna frogatzen duten irizpideak azpimarratuz eta lanaren ondorio orokorrak formulatu dira.

## 1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

### 1.1. Begirada bat Haur Literaturaren historiari

Hezkuntza Premia Bereziek Haur Literaturan duten irudia ulertzeko, Haur Literaturaren historiari erreparatzeko beharra dago. Colomer-ek (2010, 101. or.) dioten moduan, “La existencia de una literatura específicamente destinada al público infantil y adolescente es un fenómeno propio del mundo moderno”. Cervera-k (1992, 38. or.) azaltzen du honen arrazoia: “La literatura infantil solo puede surgir a partir del momento en que se empieza a considerar al niño como ser con entidad propia y no solo como futuro hombre.”

Orain arte aipatutako bi autoreen aburuz, hori XVIII. mendean gertatzen da, baina Cervera-k horren eragilea Charles Perrault izan zela gehitzen du. Hala ere, Gomez-ek (2002) azaltzen duen moduan, “Perrault, klasiko handia, ez zen originala izan”, baizik eta “ahozko kulturetako errezitazailea idazle bihurturik”. Horrez gain, ipuin klasikoez hitz egitean, Martxen Eguen (1997) kolektiboak dioten moduan, “bi deitura datozkigu burura ezinbestean: Grimm eta Andersen.” Grimm anaiak, Alemaniaren ahozko tradizioan zeuden ipuinen idazketa egin zuten, baina Andersen edozein gaitan oinarritzen zen ipuinak idazteko, haren ipuinen artean aniztasun handia egotea ondorioztatu zuena (Martxen Eguen, 2007).

Testuinguru honetan, zailtasunak dituzten pertsonaien irudia oso argi azaltzen du Grande Esteban-ek (1996): “(...) las minusvalías son un castigo por alguna culpa. O se compensan con unas cualidades excepcionales. Se perpetúa la noción de que las personas con minusvalías no son ‘normales’ ”. Gainera, gehitzen du: “(...) se puede observar la minusvalía como castigo o atributo negativo de los personajes, así como su compensación mediante cualidades o sucesos extraordinarios”.

Autore honek dioten moduan, zailtasunen trataera hau ipuingintza klasikoaren hiru autore garrantzitsuek idatzitako obra batzuetan gertatzen da. Hasteko, Perrault-en “Erpurutxo” ipuinean, non, oso txikia izatea inteligentzia handia izatearekin konpentsatzen den. Jarraituz, Grimm anaien “Verdezueta” ipuinean, gaur egun “Rapunzel” izenburuarekin ezaguna, Printzea dorretik behera botatzen da sorginaren madarikazioa jaso ostean eta itsu geratzen da. Itsua den bitartean, triste eta zoritxarreko irudiarekin erlazionatzen dute, baina egun batean, printzesa aurkitzen duenean, haren

malkoak itsutasuna kentzen diote, mirarizko gertaera bat. Andersen-ek ere mirarizko gertaera batekin lotzen du mugikortasun zailtasunaren sendaketa haren “El tullido” ipuinean.

Orain arte, Haur literaturaren helburua, Cervera-k (1992, 14. or.) adierazten duen moduan “(...) facilitarle la adquisición del caudal de conocimientos que le hacen falta” zen. Halere, gaur egun, ikuspegi aldaketa bat egon da eta Hoster eta Castilla-k (2003) azaltzen duten legez, “el disfrute lector se convierte en un objetivo prioritario”. Aldaketa honen eraginez, Colomer-en (1998) hitzetan, gai berriak barneratu egin dira haurrentzat zuzendutako literaturan, gaixotasunak, heriotza zein elbarritasunak aipatzen dituelarik, hots, iraganean haurrentzat desagokiak kontsideratzen ziren gaiak.

Hala eta guztiz ere, 1997. urtean Monjas eta Gonzalez-ek salatzen zuten, nahiz eta Haur eta Gazte Literaturan elbarritasunak dituzten pertsonaien kopurua handitu izana, oraindik oso obra gutxi zeudela eta are gutxiago Haur Hezkuntzako ikasleentzat zuzendutakoak. Horrez gain, pertsona hauek duten irudia ipuinetan oraindik oso desagokia izaten dela ezagutarazten dute, hots, elbarritasuna gaitasun bereziekin konpentsatzen, mirarizko sendaketekin, elbarritasunari buruzko informazio faltsua emanez edota era dramatikoan aurkeztuz, errukitasun sentimendua eragin dezakeena. Hayes-ek (2014, 7. or.) iritzi berdina adierazten du hurrengoia esaten duenean: “Although books about people with disabilities are becoming more popular, the quality is questionable.”

## **1.2. Hezkuntza Premia Bereziak Haur Literaturan agertzearen garrantzia**

Autore ugari Haur Literaturaren onurei erreparatzen diete. Monjas eta Gozalez-ek (1997) ipuinak haurren ezagutza iturri bezala aurkezten dituzte eta enpatia, hausnarketa eta balioen transmisioa garatzen laguntzen dutela diote. Gainera, ipuinak sormena garatzeko oso egokiak dira, baita haurrak hizkuntzan trebatzeko zein kausalitatearen kontzeptua ulertzen hasteko (Mulero & Lasarte, 2015). Horrez gain, ipuinak aukera paregabea ematen dute bertoko pertsonaiekin identifikatu ahal izateko eta horrela, ikuspuntu ezberdinak ezagutu zein ulertu ahal izateko (Monjas & Gozalez, 1997 eta Blaska, 2003).

Blaska-k (2003) aipatutako azken abantaila honi garrantzi handia ematen dio, bada, haren aburuz, ipuinen pertsonaiekin identifikatu ahal izatea literaturarenganako zaletasuna handitzeaz gain, haien egunerokotasunean aurkituko dituzten esperientziak ikusi ahal izango dituzte, baita bertan azaltzen diren emozioen adierazpenak ere. Wopperer Haur Literaturaren alde ere azaltzen da haren onurak horrela laburtzen dituenen:

It is written purely to entertain, to help children and young adults understand the world they live in, or to help cope with problems they face. It can also be written to introduce new places, ideas, or situations to its readers, or to portray characters with whom readers can relate to better understand themselves. (Wopperer, 2011)

Horrez gain, Blaska-k dioen moduan, ipuinen bidez, ez dituzte soilik haien munduari buruzko ezagutzak jasoko, baizik eta, haren hitzetan: “they learn about themselves and develop positive attitudes regarding many things they have learned through books. This includes learning about the variety of people in the world (...)” (Blaska, 2003, 15.or).

Gauzak horrela, Hayes-ek baieztatzen duen moduan: “Disability is another culture children need to be exposed to through literature” (2015, 42.or). Wopperer-ek (2011) hainbat arrazoi ematen ditu Hezkuntza Premia Bereziak Haur Literaturan agertzearen garrantzia adierazteko. Hasteko, haren aburuz, zailtasunak dituzten pertsonaiak barneratzen dituzten ipuinak zailtasunik ez dituzten haurrentzat oso garrantzitsuak dira lagundu ahal dietelako elbarritasunei buruzko informazioa jasotzen, ulertzen eta nolabait zailtasun horiek dituzten pertsonekin harremanetan jartzen. Blaska-k (2003) adierazten duen bezala, aipatutako ezagutza horien bidez eta ipuinez baliatuz, hurrek ezberdintasunei dagokienez sentikortasun zein errespetuzko sentimenduak garatu ahal izango dituzte.

Horrez gain, elbarritasunen bat duten hurrei dagokienez, gainditu behar dituzten oztopoak kontuan hartuz, batzuetan, lekutik kanpo egotearen zein bakardade sentimenduak pairatu ahal dituzte (Wopperer, 2011 eta Hayes, 2014). Haur Literaturak sentimendu horiek gainditzeko laguntzen du, Wopperer-en hitzetan “Literature provides the necessary perspectives for children and young adults with disabilities to see themselves differently, more positively” (2011). Gainera, gehitzen du “it can support the development of personal power by portraying these characters as strong and believable. This literature can also assist children and young adults with disabilities in developing self-esteem and sense of purpose.” (Wopperer, 2011).

Ildo honetatik jarraituz, biblioterapiari buruz hitz egin beharra dago. Davis eta Wilson-ek (1992) biblioterapia kontzeptua horrela deskribatzen dute: “Bibliotherapy is the process of growing toward emotional good health through the medium of literature“. Ouzts-ek terapia mota honen erabilera ezberdinak ikusgai jartzen ditu hurrengo esatean:

Bibliotherapy was first used as a type of therapy with people who were emotionally ill. Today bibliotherapy is also used with a wide range of people from school children to adults in prison. It is used to help people adjust to life's many problems as well as to promote change in attitudes toward people and situations. (Ouzts, 1991)

Haur Literaturaren balio terapeutikoa onuragarria izan daiteke hainbat esparrutan. Hernández eta Rabadán-ek (2014) biblioterapiaren erabilera haur ospitalizatuekin defendatzen dute esanez, ipuinen bidez, haurrak ez direla soilik entretenituko, baizik eta haien gaixotasunak hobeto jasatea eta ongizate emozionala lortzea ahalbidetzen dutelako ere. Carrasco-k (2008) iritzi honekin bat egiten horrela dio: “el cuento emerge como una de las medicinas más imprescindibles.”

Blaska-k (2003) eskolan zein etxean biblioterapiaren erabilera hauren behar ezberdinei buruz ikasteko aukera ematen duela dio. Gainera, Ouzts-ekin bat dator biblioterapiak jarrera aldaketak ekar ditzakeela esaten duenean, adibidez, ezberdintasunei zein elbarritasunei dagokienez, jarrera positiboak ekar ditzake, betiere, ipuinen aukeraketa egokia eginda. (Blaska, 2003).

Biblioterapiaren erabilera zein ipuinen onurak kontuan hartuz, Villanueva haur-psiatriak Fortuna argitaletxearen bidez, ipuin bilduma bat argitaratu du: Terapipuinak (gazteleraz zein euskaraz argitaratuta). Argitaletxearen web orrialdean Ruiz De Velasco psikologoak horrela justifikatzen du bilduma hau egitearen proiektua: “Arazoak gainditzea lortzen duen fabulazko pertsonaia baten bidez, haur, guraso, tutore eta terapeuta lagungarria izatea da Terapipuinen helburua”

Horrez gain, beste bilduma gehiago argitaratu dira, biblioterapia hurrekin aurrera eramanez, hala nola, “Psicocuentos” eta elbarritasunen gaiarekin harreman handiagoa duen bilduma txiki bat ONCE fundazioak argitaratutakoa: “Cuentos que contagian ilusión” izendatuta.





1. irudia: Haur Literaturaren onurak

Aipatutako Haur Literaturaren onurak Hernández eta Rabadán-ek (2014) idatzitako artikuluan aurkitutako aurreko eskema honetan (1.irudia) laburbiltzen dira. Hala eta guztiz ere, onura guzti hauetaz baliatu ahal izateko oso garrantzitsua da ipuinen hautaketa egokiak egitea. Izan ere, Wopperer-ek (2011) azaltzen duen moduan: “Children want to be able to relate to the character they are reading about and looking at in the illustrations. For young children with disabilities, this is harder if the character does not look and act like them.” Blackston-ek (2003) azaltzen duen moduan, elbarritasunak barneratzen duen literatura “It has the potential to enhance inclusive environments”, betiere pertsona hauen onarpena ulermena eta miresmena transmititzen duten ipuinak izanda.

### 1.3. Elbarritasunak barneratzen dituzten ipuinak aukeratzeko irizpideak

Aurretik esan bezala, elbarritasunak barneratzen dituzten ipuinek onura ugari ekar ditzakete. Hala eta guztiz ere, batzuetan, ipuin hauen kalitatea ez da egokia bete nahi diren helburuak lortzeko. Izan ere, Shaphiro-k (1999) dioen moduan, batzuetan elbarritasunen bat duten pertsonaiak estereotipoz beteta irudikatzen dituzte. Ondorioz, elbarritasunak ez dituzten haurrek jarrera negatiboak bereganatuko dituzte eta zailtasunak dituztenak autoestima baxua, bakardadea zein lekutik kanpo sentitzen hasiko dira (Hayes, 2014).

Gauzak horrela, oso garrantzitsua da bai eskolako irakasleak, baita familiak haurrak pertsona hauen irudi positiboetara hurbiltzen direla ziurtatzea (Anti-Defamation League ‘ADL’, 2013). Era berean, Dominguez Alonso-k et al. aipatzen duten moduan, “El sistema educativo español aboga por la inclusión educativa en la atención al alumnado diverso en los centros de enseñanza obligatoria” (2015). Autore hauen esanetan, inklusioa haurren beharrak asetzea da baina curriculum paralelorik egin gabe, hots, gelako aniztasuna kontuan hartuz haur guztientzat baliogarriak izango diren metodo alternatiboak bilatzen. Bestalde, Orr-ek (1996) integrazioa espazioa elkarbanatzea baino ez dela dio. Hortaz, gelako aniztasunari buruz aritzean integrazioa alde batera utziz, pausu bat gehiago eman eta inklusioaren kontzeptua bilatu behar da.

Horrez gain, ikusiko den moduan, hainbat autorek Hezkuntza Premia Bereziak barneratzen dituzten ipuinak aukeratzeko zenbait irizpide zehaztu dituzte. ADL-ren (2013) aburuz, hautatu beharko genituzkeen ipuinak enpatia, errespetua zein onarpena bultzatzen dituztenak dira, zailtasunei buruzko informazio erreala bermatzen dutenak eta pertsona hauen irudi positiboak bermatzen dituztenak, hots, pertsona indartsuak, zoragarriak eta independenteak bezala, rol ezberdinetan barneratzen direnak eta jarduerak era integratu batean burutzen dituztenak.

Blaska-k haurrentzat zuzendutako 250 ipuin analizatu zituen hurrengo irizpideak kontuan hartuz:

- (1) Promotes empathy not pity. (2) Depicts acceptance not ridicule. (3) Emphasizes success rather than, or in addition, to failure. (4) Promotes positive images of persons with disabilities or illness. (5) Assists children in gaining accurate understanding of the disability or illness. (6) Demonstrates respect for persons with disabilities or illness. (7) Promotes attitude of "one of us" not "one of them." (8) Uses language which stresses person first, disability second philosophy, (...). (9) Describes the disability or person with disabilities or illness as realistic (...) (10) Illustrates characters in a realistic manner. (Blaska, 2004)

Elbarritasunen trataeraz gain, Colomer-ek dioen bezala: “Hay que pensar en concreto ‘para quién’ y ‘para qué’ se está escogiendo un libro.” (2010, 228. or.). Gainera, kalitatezko ipuinak aukeratzeko hauen analisi narratologiko bat egin beharko litzateke, non ipuinean gertatzen den istorioari buruzko gertaerak, denboraketa, espazioa zein pertsonaiak aztertzen diren (Colomer, 2010). Horrez gain, atal honetan, hizkuntzari erreparatzea ere garrantzia handia dauka. Honi dagokionez, Colomer-ek (2010) dioen

moduan, hizkuntzaren zailtasuna baloratzeaz gain, haurrentzat erakargarriak diren teknika ezberdinak erabiltzen diren analizatu behar da, esaterako, dialogoaren erabilera:

Sin duda, introducir mucho diálogo aligera la lectura y puede servir a los lectores menores porque ahorra texto. Pero también provoca que el lector deba dedicar mucha atención a la densa información facilitada por los personajes, deba ser muy rápido en el proceso de inferencias y, sin un narrador que le cuente, se puede hallar “muy solo” en la gestión comprensiva de lo que ocurre. (Colomer, 2010, 193.or)


#### **1.4. Elbarritasunak barneratzen dituzten ipuinen sailkapena**

Zailtasunak barneratzen dituzten ipuinak, haien gaiaren trataera kontuan hartuz, neutralak zein espezifikokoak izan daitezke. Lehenengo ipuinetan, elbarritasunen bat agertzen da baina ez da argumentuan nabarmentzen. Bigarren motatako ipuinetan, aldiz, gaiaren arazo nagusia zailtasun horrekin zuzenean harremanean dago (Bishop 2003). Autore honen aburuz, bi ipuin motak erabili beharko litzateke, alde batetik, zailtasunak dituzten pertsonen eguneroko bizitza normaltasunez ikusi ahal izateko eta bestetik, arazo horiei buruzko ikuspuntu ezberdinak aztertuz, jarrera kritikoa zein enpatia garatu ahal izateko.

Prater-ek (2003) horrela justifikatzen ditu gaur egungo autoreen arrazoiak elbarritasunak dituzten haurrak haiek idatzitako literaturan barneratzeko: “to (a) focus on the life of an individual with a disability, or (b) tell a story that happens to include an individual with a disability”. Hark azaltzen duen bezala, lehenengo kasuan, pertsonaiak eredu izateko zein biblioterapia aurrera eramateko balio daitezke. Bigarrenengan, aldiz, egileen helburu nagusia aniztasunari buruz irakatsi edo jarrera ereduak eman beharrean, gizartean dagoen aniztasuna irudikatu baino ez dute nahi (Prater, 2003).

Hoster eta Castilla-k (2003) antzeko sailkapen bat egiten dute ipuin hauen gaia zein entzule/irakurleak izango duten hautemateari begira. Haien ustez, hiru ipuin mota aurki daitezke. Hasteko, elbarritasuna ipuinaren gai nagusizat ez daukaten ipuinak, Bishop-ek (2003) neutroak deritzon ipuinak. Jarraituz, Castilla eta Hoster-ek (2003) elbarritasunak argumentuan nabarmenduta dituzten ipuinen artean, bereizketa bat egiten dute. Alde batetik, integrazioa bultzatzen duten ipuinak, soilik zailtasunik ez dituzten haurrak hartzaile direlarik, konponbide ez errealistak edo gaiaren trataera desegokia izan ditzaketenak eta beste aldetik, konponbide errealistak zein zailtasun bereziak dituzten

haurren benetako gaitasunetan oinarritzen direnak. Azken kasu honetan, ipuinak zailtasunik ez dituzten haurrentzat zein zailtasunak dituzten haurrentzat egokiak izan daitezke. Izan ere, Blaska-k (2003) azaltzen duen bezala, elbarritasunei buruzko ipuinak irakurtzea, bai zailtasun horiek ulertzen zein onartzen baita elbarritasuna duten umeen kasuan, haren autoestima hobetzen lagundu dezakete. Hurrengo koadro honetan ipuin hauen sailkapenari buruz esandakoa laburtuta agertzen da.



Amaitzeko, Ortíz-ek (1994) azpimarratzen duen moduan Hezkuntza Premia Bereziak dituzten haurren artean, zenbaitetan, zailtasun bereziak suertatzen dira komunikazioan, beraz, kasu hauetan, egokitutako ipuinak beharrezkoak izaten dira. Ipuin mota hauek ez daude sailkatuta gaiaren arabera, baizik eta haurren beharren arabera. Esaterako, itsutasuna duten haurrentzat, Braille-n idatzitako ipuinak edota ukimen-ipuinak erabili daitezke; gortasuna duten haurrentzat, zeinu hizkuntzan idatzitakoak eta hizkuntza eta hizkeran atzerapena duten haurrentzat, marrazki asko dituzten ipuinak eta hizkuntzari begira oso sinpleak direnak.

## 2. Metodologia

Ikerkuntza lan hau aurrera eramateko, lehendabizi, autore ezberdinen gai honi buruzko ideiak aztertu dira. Horretarako, zenbait iturri bibliografiko arakatu dira, bai liburuak, bai internetetik lortutako dokumentuak, baita aldizkarietatik lortutako zenbait artikulua. Behin informazio guztia jasota, lortutako ideia guztien sintesia eginez, lanaren marko teorikoa burutu da.

Ondoren, gai hau jorratzen duten ipuinen bilaketa txiki bat egin da eta horietatik lau ipuin aukeratu dira bi baldintza bakarrei erreparatuz, alde batetik, hautatutako ipuinak elbarritasunen batekin harremanean egotea eta beste aldetik Haur Hezkuntzako umeentzat zuzenduta egotea. Ondoren, lanaren garapena burutzeko, kontsultatutako iturriek ziotena kontuan hartuz, ipuin horien azterketa kualitatiboa egin da. Hasteko, ipuinen pertsonaiak zein gertaerak aztertu dira. Geroago, elbarritasunen trataera egokia duten zehaztu da eta amaitzeko, marko teorikoan ikusitako autoreek egindako sailkapenaren arabera antolatu dira.

Lanari amaiera emateko, lortutako informazioa zein egindako ipuinen analisiak kontuan hartuz, lanaren ondorioak zehaztuko dira.

## 3. Lanaren garapena: Ipuinen analisisia

### 3.1. *Catalina, el oso y Pedro*

Kalandraka argitaletxeak 2001. urtean argitaratu zuen ipuin honek, Christiane Pieper-ek idatzitakoa, oso testu sinplea du. Narratzaileak esandako esaldi gutxi eta txikiz osatuta dago gehienbat, hots, testu osoa 3. pertsonan dago eta ez du dialogorik. Haren ezaugarri garrantzitsuenak irudiak dira, bada, horien bidez, pertsonaien berezitasunak zein istorioaren gertakariak hobeto ezagut daitezke. Gainera, hartzaileak haur txikiak izanda, haren ulermena egokia lortzeko, testua irakurtzeaz gain azalpen batzuk eskaintzea eskatzen duen ipuina da.

Fantasiatzko ipuin honetan agertzen diren pertsonaia nagusiak hiru dira: Catalina, Pedro eta Hartza. Haien artean ezberdinak dira, ipuinaren irudiei erreparatuz hauteman daitekeenez, Catalina elbarritasunik gabeko neska bat da, Pedro haren elbarritasuna dela eta gurpil-aulki batean ibili behar den mutila da eta Hartza animalia bat da. Hala ere, ezberdintasun horiek ez dute oztoporik jartzen haien harremanean, hirurak errespetuzko jarrera dute elkarrengan oso lagunak izatea eta batera abenturen bila joatea ahalbidetzen diona. Era berean, hirurak guztiz integratuta daude haien taldean, dena elkar egiten dute baina bakoitzak haren erara. Beraz, zailtasun berezi hori duen pertsonaia, besteen maila berean topatzen da.

Horrez gain, testuak dioena kontuan hartuz haien artean ezberdintasun gehiago daude, Catalina, Pedro ez bezala, indar gutxiegi dauka Hartza besoetan jasateko, Pedro ez da ausartzen zuhaitzen adarretatik eskegitzera eta Hartza ez da ausartzen adar batetik bestera igarotzera tximinoak bezala. Pertsonaia bakoitzak berezitasun hauek izateak ulertarazten du nahiz eta fisikoki ezberdinak izatea eta modu ezberdinetan ibiltzea, azken finean hirurak berdinak direla, hots, lehen esan bezala, maila berean daudela. Izan ere, guztiek egin ezin duten zerbait daukate, berdina da elbarritasunen bat izatea ala ez zein animalia bat izatea. Gainera, Catalinaren indar ezari buruz aritzean, Pedroren egoerak izan dezakeen abantaila bat intsinnatzen dute, gurpil-aulkian ibiltzen denez, indar nahikoa du hartza haren belaunetan eramateko.

Ipuinean zehar agertzen diren abenturetan espazio ezberdinak agertzen dira, esaterako oihana, hiria, hondartza eta itsasoa. Horietan, hiru pertsonaiak leku batetik bestera modu ezberdinetan abiatzen dira, hala nola, hirian ibiliz doaz, hondartzan arrastaka, itsasoan igerian edota izurdeen gainean eta oihanean eskegita edota jirafen gainean. Honekin ipuinak mugimendua modu askotan gerta daitekeela demostratu nahi du baita modu guzti horiek onargarriak direla, hots, gurpil-aulki batean ibiltzearen auzia normalizatzen saiatzen da.

Gauzak horrela, elbarritasunari dagokionez, ipuin honek elbarritasunen bat duten pertsonen onargarritasuna zein haien arrakasta azpimarratzen duela esan daiteke. Era berean, ezberdintasunei zein elbarritasunei dagokienez jarrera positiboak zein inklusiboak bermatzen ditu. Gainera, elbarritasuna irudietan baino ez islatzearekin, Pedrori berari ematen zaio garrantzi gehiago eta ez haren zailtasun bereziari.

Azkenik, marko teorikoan aztertutako gai hau jorratzen duen ipuinen sailkapena kontuan hartuz, ipuin neutral bat dela esan daiteke. Elbarritasuna inplizituki landu egiten da, ez da argumentuan nabarmentzen.

### 3.2. *Cierra los ojos*

*Cierra los ojos* Claudia Ranucci-k idatzitako ipuina Thule argitaletxeak argitaratu zuen 2009. urtean. Itsutasuna lantzen duen ipuin hau dialogoz beterik dago. Ipuinaren protagonistak, anaia itsua duen umeak, bere amari kontatzen dizkio haren anaiarekin dituen eztabaidak. Gauzak horrela, protagonista bera narratzailea da, bere amari kontatzen ari diolako zer gertatzen den bere anaiarekin, baita haren esanak zein haren anaiarenak dialogoan ipintzen dituen. Beste era batean esanda, protagonistak haren anaiarekin dituen eztabaidak azaltzeko, izandako elkarrizketak nolabait antzeztu egiten dizkio amari.

Eztabaida horiek gertatzen dira zailtasunik ez duen umeak munduan aurki daitezkeen gauza zein ezaugarri ezberdinak azaltzen dizkionean bere anaia itsuari. Izan ere, haren azalpenak, munduko gauza horiek haren ikuspuntutik nolakoak diren azaltzen saiatzen da, esaterako, zuhaitz bat, landare oso altua eta hostoduna bezala deskribatzen dio. Hala ere, bere anaia, azalpen horiei ez die sentua ikusten, beraz, munduko gauza horiek berak nola ulertzen dituen azaltzen dizkio anaiari, adibidez, zuhaitza lurretik ateratzen den makil handia eta abeslaria bezala deskribatzen du.

Zailtasunik ez duen haurrak bere amari eztabaida guzti horiek kontatzen dizkio ez duelako ulertzen bere anaia itsuaren ikuspuntua eta zergatik ez dituen ulertzen gauzak berak dioen modukoak direla. Izan ere, haren ustez, bera bakarrik izan dezake arrazoia, gauzak bera azaltzen ari dituen moduan direla ikusten duelako. Dena den, ipuinaren amaieran, amak haren anaia oker ez dagoela esaten dio eta hori ziurtatzeko, begiak ixtearekin nahiko dela.

Bi anaien arteko eztabaida hauei esker, ipuinak ikuspuntu ezberdinak daudela demostratu nahi du eta haren amaiera kontuan hartuz, esan daiteke, ikuspuntu guztien onargarritasuna bultzatu egiten duela, bada, ez du elbarritasuna duen umearen ikuspuntua ukatzen. Gainera, zailtasun hau duten pertsonen lekuan ipintzea bultzatu

nahi duen ipuina da, azken finean, amaieran, amak begiak ixtea esaten dionean umeari, bere anaiaren lekuan ipintzea esaten dio. Beraz, enpatia sustatzea ipuin honen helburu nagusi bat dela esan daiteke. Horrez gain, elbarritasunari buruz ematen duen informazioa oso baliagarria izan daiteke Haur Hezkuntzako umeak ikusmen urritasuna zein itsutasuna ulertu ahal izateko.

Amaitzeko, esan beharra dago, ipuin honetan itsutasuna dela gai nagusia, beraz, autoreen sailkapena kontuan hartuz, ipuin espezifiko bat dela esan daiteke. Horretaz aparte, ipuinaren izaera nolakoa den kontuan hartuz, gaiaren trataera egokia duela esan daiteke, ez baitu elbarritasuna duen pertsona baztertzeko, ezta elbarritasunari buruzko informazio faltsua ematen, guztiz kontrakoa. Ondorioz, ipuin espezifikoa izateaz gain, haur guztientzat egokia den ipuina dela aipatu beharra dago.

### **3.3. *El Grillo Benito***

Almudena Taboada-k idatzitako ipuin hau 2005. urtean argitaratu zen SM argitaletxearen bidez. Istorio honetan agertzen diren pertsonaia guztiak animaliak dira. Benito, protagonista, kilker bat da, txikitan izandako gaixotasun batengatik gor geratu zena. Haren lagun guztiak intsektuak dira eta orkestra batean jotzen dute, Benitok orkestraren oihal arduraduna da. Gau batean, errezitaldi baten erdian, Benitok lurraren burrunba sentitu eta konturatu egiten da oilo bat hurbil daudela. Haren lagunak salbatzearen oiloaren bila doa eta zaldi bat izango balitz bezala haren gainera igotzen da, hura uxatzeko asmoz. Azkenean, oiloa alde egiten du izututa eta Benitok intsektu taldearen heroia bezala aurkezten da.

Ipuin honen analisia egiteko, alde batetik, aipatu beharra dago elbarritasuna duen pertsonaiari ematen zaion rola. Ipuinaren hasieran, Benitok haren lagun taldean integratuta dagoela ikus dezakegu, bada, orkestraren errezitaldietan berak ere bere egin beharra du. Hala ere, haren lagun guztiek musikaz arduratzen dira. Gauzak horrela, Benito talde horretan integratuta dagoela esan daiteke, dena den, aldi berean ez dago guztiz besteen mailara, hots, integrazioa egon arren, ez dago inklusioa.

Beste aldetik, ipuinaren amaieran, Benitok heroi bezala agertzen da oiloaren eraso saihestu ahal izan duelako. Dena den, hori lortzeko ezohiko gaitasunen beharra izan



duela esan daiteke. Izan ere, gorra denez beste zentzumenak garatuagoak ditu eta horri esker lurraren dardaraz konturatzen den bakarra da. Gainera, ipuinean dioen bezala, oiloa hurbil dagoela konturatzen denean, beste motatako usaina nabaritzen du. Are gehiago, gai da bera bakarrik oiloa zamalkatzera eta uxatzera.

Ondorioz, fantasiatzko ipuin honetan, gortasunaren trataera ez da errealista eta zailtasun hau izateak, ausardia eta gaitasun bereziekin konpentsatzen da. Honen eraginez, elbarritasun hau duten hurrek pertsonai horrekin identifikatzea zailagoa izango da eta beharbada ez da onuragarria izango haien autoestimarako.

Autoreen sailkapena kontuan hartuz, ipuin espezifikoa dela baieztatu daiteke, bada, elbarritasuna argumentuan nabarmenduta dago baina zailtasunak dituzten haurrentzat ez da guztiz egokia. Izan ere, esan bezala, ipuin honek ez du konponbide errealistatik ematen eta ipuinaren hasieran Benitok zuen rola kontuan hartuz, gaiaren trataera ez da guztiz egokia. Hala ere, zailtasunik ez duten haurrentzat egokia suertatu daitekeen ipuina da amaieran, Benitoren arrakasta azpimarratzen dutelako. Era berean, pertsona gorren onarpena zein errespetua bultzatu nahi duen ipuina da.

### **3.4. Superhéroes**

Roberto Aliaga-k idatzitako *Superhéroes* ipuina Anaya argitaletxeak argitaratu zuen 2011. urtean. Bertan Hezkuntza Premia Berezietan espezializatutako eskola batera joaten diren 5 haur agertzen dira. Horietako ume bat ipuinaren narratzailea da eta kontatu egiten du nolakoak diren bera eta bere gelakideak. Ume bakoitzak zailtasun bat du eta aldi berean, haren zailtasunarekin harremanean dagoen botere bat. Esaterako, Susi-k hanka ortopedikoak ditu, beraz, haren boterea da horiek jaurtitzea urruneko ostikoak emateko. Andrea, autismoa duen neskaren boterea lekutik mugitu gabe bidaiatzea da. Horretaz aparte, kontakizunean guztiak eskola horretara joaten dira bertan haien botereak erabiltzen irakasten dietelako, baina behin eskolatik irtenda, normalak izango balira bezala jokatu behar dutela azaltzen da.

Ipuinaren argumentuagatik ondorioztatu dezakegu, haren helburua ez dela integrazioa bultzatzea. Izan ere, elbarritasunak dituzten haurrak, haientzat bereziki zuzendutako eskola batera doaz, zailtasun berezirik ez duten hurrekin harremanean jarri ezinik.

Beraz, nolabait haur hauek gizartetik baztertuta irudikatzen dira, marko teorikoan Blaska-ren (2004) esanak gogoratuz, ipuin honetan elbarritasunak dituzten haurrak ez daude gure taldean, baizik eta haien taldean.

Horrez gain, lehen esan bezala eta ipuinaren izenburuak adierazten duen moduan, haur hauek botere bereziak izango balituzte bezala azaltzen dira. Johnny, itsua den ikaslea, inurrien pausuak entzun eta pertsonak haren usainagatik ezagutu ahal dituen haurra da. Daríus denbora eten dezake eta haurra izango da betiko. “Botere” hauen bidez, haien elbarritasunak ezohiko gaitasunekin konpentsatzen dituztela pentsarazi dezake. Beraz, ipuin honek ez du elbarritasunak dituzten pertsonen irudi guztiz errealista ematen, baizik eta, haien zailtasunaren arabera, bakoitzaren gaitasunen bat handitzatu egiten du.

Gainera, ipuinean diotenaren arabera, behin eskolatik irtenda, besteak bezala izango balira jokatu behar dute, hots, haien ezberdintasun horiek nolabait ezkutatu behar dituztela esaten du. Adibidez, Daríus enanismoa duen umea, ondoko eskolako ume txikiei hurbildu eta haiekin nahastu egiten da eskolatik irtetea. Gizartean normala izango balira bezala jokatu behar izatea ez da elbarritasun horien onargarriritasuna bultzatzeko egokia, izan ere, enpatia sustatu beharrean, pena edo bihozmina bultzatzen du.

Hala eta guztiz ere, ipuinaren amaieran, narratzaileak berak, barre egiteko boterea duenak, nahiz eta eskolatik kanpo barrea eusten saiatu, batzuetan ezinezkoa egiten zaiola esaten du. Momentu horretan, beste bi pertsonaia agertzen dira irudietan, zailtasunik ez dituzten amama eta iloba bana, Down-en sindromea duen ume honen barre algara ikusita harridura edo larritasun aurpegiak ipintzen dituztenak. Amaierako eszena honetan, ikus daitekeenez, gizarteak elbarritasunen bat duten haurren aurrean duen jarrera aurkezten da. Izan ere, ume hauei eskatzen zaie normalak izatea kalera irtetea, baina batzuetan, haien izaera ezkutatu ezinik, haien ezberdintasunak erakusten dituztenean, hurbileko jendearen jokaera ipuinean bezala, harritzea edota zuzenean haietatik urruntzea da.

Ipuina komentatuta, haren egokitasuna zehaztuko da. Ipuin honek 4 urtetik gorako haurrentzat zuzenduta dagoela dio haren azalean, halere, marko teorikoan zehaztutako gai hau jorratzen duten ipuinak aukeratzeko irizpideetatik guztiz aldentzen da, ez du inklusioa bultzatzen, ez du zailtasun horiei buruzko informazio guztiz erreala ematen,

eta ez du haien onargarritasuna sustatzen. Gauzak horrela, haren egokitasuna zalantzan jartzen da. Dena den, haren izaera dela eta, gizarte kritika bat bezala ere interpreta daiteke, izan ere, gai honi buruz gizartearen arazo larriak aditzera ematen ditu, haien bazterketa, haien ezaugarrien ezkutaketa bilatzea baita jendearen jarrera nolakoak diren ikustean. Horrela izatekotan, Haur Hezkuntzako gela batean ipuin hau kontatuz gero, azalpen ugariekin osatu beharko litzateke edo ipuina haurrentzat bideratu beharrean helduentzat izan beharko litzateke.

Amaitzeko, aurreko ipuinekin egin bezala, autoreen sailkapenean ipuin hau espezifikoak zein elbarritasunak dituzten haurrentzat desegokia izango litzateke. Hala eta guztiz ere, esan bezala, integrazioa sustatzen ez duenez, ez zen egokia izango zailtasunik ez duten haurrentzat ere kontaketa azalpen ugariekin osatzen ez bada.

#### **4. Emaitzak eta ondorioak**

Ondorioekin hasteko, analizatutako ipuinei buruz aritu beharra dago. Ikusi ahal izan den moduan, aztertutako 4 ipuinetatik, lehenengo biak, hots, *Catalina*, *El Oso y Pedro* eta *Cierra los ojos* egokiak dira haur guztientzat. Beste biak, aldiz, *El grillo Benito* eta *Superhéroes* hartzaile zehatz batzuentzat baino ez lirateke egokiak izango. Multzo bakoitzeko ipuinak guztiz ezberdinak dira beste multzokoekin konparatuz gero, beraz, ondorioak zehazteko, lehendabizi haur guztientzat egokiak diren ipuinen ezaugarri komunak zehaztuko dira eta ondoren beste bi ipuinenenak.

*Catalina*, *El Oso y Pedro* eta *Cierra los ojos* nahiz eta berez oso ipuin ezberdinak izan, bai testuaren idazketari dagokionez, baita lantzen duten elbarritasunari dagokionez, ezaugarri komun ugari dituzte. Ipuin hauetan agertzen diren pertsonaia guztiak maila berean daude momentu oro, hots, ez dira baztertzen, elbarritasunik ez dituzten pertsonaiei ematen zaizkien rol berdinak hartzen dituzte eta haien ikuspuntuak zein lehenetasunak kontuan hartu egiten dira.

Era berean, bi ipuinak enpatia lantzea dute helburu, bada, zailtasun horiek dituzten haurren lekuan jartzeko aukera ematen dute. Gainera, bi ipuinetan elbarritasuna era inplizitu batean aurkezten zaigu, irudien bidez edota gertaerak zein testuinguruaren bidez. Beste era batean esanda, ipuin hauetan ez da esaten agertzen diren pertsonaia

batzuk elbarritasunen bat daukatela, ez zaio ezta izena jartzen elbarritasun horri, beste era batzuetan ematen da aditzera. Horrela, bi ipuinek pertsonaien zailtasun bereziei garrantzia eman beharrean, horien ikuspuntuari edo lehentasunei ematen diote, zailtasun horren normalizazioa zein onarpena eragiten duena.

*El Grillo Benito* eta *Superhéroes* ipuinak, haien artean analizatutako beste biak baino ezberdintasun gehiago dituzte. Dena den, zenbait ezaugarri komun dituzte ere. Esan daiteke, bi ipuin hauek gai hau jorratzen zuten iraganeko ipuinekin antza handia daukatela. Izan ere, bieran elbarritasunen irudia ez da guztiz errealista, agertzen diren elbarritasunak dituzten pertsonaia guztiak ezohiko gaitasunak dituztelako, haren zailtasunak nolabait konpentsatzen egongo balira bezala.

Era berean, pertsona hauen nolabaiteko bazterketa ere islatzen da ipuin hauetan. Lehenengo ipuinean, elbarritasuna duen pertsonaiari ematen zaion rola ez da inklusiboa ez baitu haren kideak duten rola garrantzi bera. Bigarreanean, elbarritasunak dituzten pertsonaia haien zat berezia den eskola batera joaten dira eta gainera, bertatik irtetea normalak izango balira bezala aritu behar dira. Gauzak horrela, lehenengo multzoko ipuinak gaur egungo ikuspegiarekin hobeto bat egiten dutela esan daiteke.

Ipuinen analisisetatik pixka bat aldenduz, lanetik lortutako ondorio orokorragoei buruz aritu beharra dago. Alde batetik, ikerketa lan honen bidez Haur Literatura garrantzia itzela duela ondorioztatu da. Izan ere, baliabide hau oso erabilgarria da eta onura anitz ekar ditzake haurren hezkuntzarako. Era berean, honen bidez haurrek gai ugarietara hurbiltzea lor daiteke eta horiei buruzko ikaskuntza ezberdinak jasotzea. Lan honetan ikus ahal izan denez, horietariko gai bat elbarritasunak izan daiteke.

Hala eta guztiz ere, nahiz eta ipuinak oso baliogarriak izan ahal diren, oso garrantzitsua da hauek haurrei bermatu nahi zaizkien mezuak zein ikaskuntzak era egoki batean barneratzen dituztela egiaztatzea. Beste era batean esanda, haurrei ipuin kontaketa bat egin baino lehen, ipuin hori egokia dela ziurtatu behar da, baina ez soilik umeen zaletasunak edo adina kontuan hartuz, baizik eta liburuak transmititzen dituzten mezuak, baloreak, ikaskuntzak eta abar haurrei bermatu nahi dizkiegunak direla egiaztatuz.

Amaitzeko, nahiz eta ikerketa lan honetan elbarritasunak jorratzen dituzten ipuinen azterketa kuantitatiboa ez egin, marko teorikoan aztertutako autore batzuen iritziak zein

lan honetako bibliografian ikus daitekeen egindako ipuinen bilaketa kontuan hartuz, oraindik gai hau jorratzen duten oso obra gutxi daudela baieztatu daiteke. Gainera, Haur Hezkuntzako ikasleentzat zuzenduta daudenak are gutxiago dira eta euskaraz idatzitakoak aurkitzea kasik ezinezkoa da. Gauzak horrela, lan honetatik ateratako beste ondorio garrantzitsu bat da gai hau lantzen duten ipuinen kopurua handitu beharko litzatekeela eta pausu bat gehiago emanaz, elbarritasunen trataera desegokia duten ipuinak alde batera utzi beharko litzatekeela.

Etorkizunean gai honetan sakontzeko, elbarritasunak barneratzen dituzten ipuinen azterketa kuantitatiboa egin daiteke ipuinetan zein elbarritasun agertzen den gehiago zehazteko eta ipuin hauen merkatua aztertu ahal izateko. Era berean, Hezkuntza Premia Berezi zehatz batean zentratuz, ipuin ugarien alderaketa egitea zein zailtasun berezi horri buruzko aplikazio didaktikoa egitea beste aukera bat izan daiteke.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak

### 5.1. Aztertutako ipuinen erreferentzia bibliografikoak

- Aliga, R. (2011). *Superhéroes*. Madrid: Anaya
- Pérez, V. (2009). *Cierra los ojos*. Barcelona: Thule
- Pieper, C. (2001). *Catalina, el oso y Pedro*. Sevilla: Kalandraka
- Taboada, A. (2005). *El grillo Benito*. Madrid: SM

### 5.2. Oinarrizko erreferentzia bibliografikoak

Anti-defamation League (2013). Evaluating children's books that address disability. <https://www.adl.org/sites/default/files/documents/assets/pdf/education-outreach/evaluating-children-s-books-that-address-disability.pdf> web orrialdetik berreskuratuta (2017/05/09)

Bishop, K. (2003). Making multicultural literature meaningful. <http://resolver.ebscohost.com/openurl?sid=EBSCO%3aeric&genre=article&issn=10949046&ISBN=&volume=32&issue=1&date=20030901&spage=27&pages=27-28&title=Knowledge+Quest&atitle=Making+Multicultural+Literature+Meaningful.&aualast=Bishop%2c+Kay&id=DOI%3a&site=ftf-live> Web orrialdetik berreskuratuta (2017/05/09)

Blackston, L. (2003). The portrayal of people with mental retardation in contemporary children's literature. <http://search.proquest.com/docview/305314135> web orrialdetik berreskuratuta (2017/02/10)

Blaska, J. K. (2003). *Using children's literature to learn about disabilities and illness*. Nueva York: Educator's International Press, Inc.

Blaska, J. K. (2004). Children's Literature That Includes Characters With Disabilities or Illnesses. <http://dsq-sds.org/article/view/866/1041> web orrialdetik berreskuratuta (2017/06/14)

Campbell, K. (2006). Selecting children's books about people with disabilities. <http://www.tnla.org/?24> web orrialdetik berreskuratuta (2017/06/26)

Cervera, J. (1992). *Teoría de la literatura infantil*. Bilbao: Universidad de Deusto

Colomer, T. (1998). *La formación del lector literario. Narrativa infantil y juvenil actual*. Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez.

Colomer, T. (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual*. Madrid: Síntesis.

Crawfor, S. (2016). More than a wheelchair in the background: a study of portrayals of disabilities in children's picture books. <http://scholar.utc.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=1056&context=honors-theses> web orrialdetik berreskuratuta (2017/06/12)

Davis, K., & Wilson, T. L. Y. (1992). *Bibliotherapy and Children's Award-Winning Books*. <http://files.eric.ed.gov/fulltext/ED354470.pdf> Web orrialdetik berreskuratuta (2017/06/20)

De Amo Sánchez-Fortún, J. M. (2002). *Literatura infantil: Teoría y Práctica*. Almería: Grupo editorial universitario

Dirks, K. (2010). *Bibliotherapy for the Inclusive Elementary Classroom*. <http://commons.emich.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=1209&context=honors> web orrialdetik berreskuratuta (2017/06/22)

Domínguez Alonso, J., López Castedo, A., Rosa Pino Juste, M. & Vázquez Varela, E. (2015). Integración o inclusión: El dilema educativo en la atención a la diversidad. *Revista Portuguesa de Educação*, 28(2), 31-50.or. <http://www.scielo.mec.pt/pdf/rpe/v28n2/v28n2a03.pdf> web orrialdetik berreskuratuta. (2017/08/18)

Gomez, G. (2002). Charles Perrault eta Grimm anaiak, ahozko narratibaren egokitzailak. *Behinola*. 7. Zbk. 26-38. or.

Grande Esteban, M. (1996). *Los ritos de purificación. Estrategias de marginación de las minusvalías en los textos literarios*. Madrid: Escuela Libre. [http://biblioteca.fundaciononce.es/sites/default/files/publicaciones/documentos/personajes\\_rotos\\_de\\_la\\_literatura\\_universal.pdf](http://biblioteca.fundaciononce.es/sites/default/files/publicaciones/documentos/personajes_rotos_de_la_literatura_universal.pdf) web orrialdetik berreskuratuta (2016/03/16)

Hayes, E. R. (2014). Reflection of self: images of people with specific learning disabilities and attention/deficit/hyperactive disorder in children's literature. Web orrialdetik berreskuratuta <http://ir.library.illinoisstate.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=1261&context=etd> (2017/02/10)

Hernández, E. & Rabadán, J. A. (2014). 'Erase una vez... un cuento curativo' Atención educativa en población infantil hospitalizada a través de la literatura. <http://revistas.um.es/educatio/article/view/194121/159481> web orrialdetik berreskuratuta (2017/04/21)

Hoster Cabo, B. & Castilla, A. B. (2003). La literatura infantil, medio para la integración de personas con dificultades. *Escuela abierta*, bol. (6), 183-228 or. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=787700> web orrialdetik berreskuratuta (2016/03/16)

Kurtts, S. A. & Gavigan, K.W. (2008). Understanging <Dis>abilities throuh children's literature. [http://scholarcommons.sc.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=1045&context=libsci\\_facpub](http://scholarcommons.sc.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=1045&context=libsci_facpub) web orrialdetik berreskuratuta (2017/06/12)

Lowe, D. F. (2009). Helping Children Cope through Literature. <http://files.eric.ed.gov/fulltext/EJ864819.pdf> web orrialdetik berreskuratuta (2017/06/12)

Martínez Garrido, F., Grande Esteban, M. & Escolar Arévalo, M. (1996). *Personajes rotos de la literatura universal*. Madrid: Escuela Libre. [http://biblioteca.fundaciononce.es/sites/default/files/publicaciones/documentos/personajes\\_rotos\\_de\\_la\\_literatura\\_universal.pdf](http://biblioteca.fundaciononce.es/sites/default/files/publicaciones/documentos/personajes_rotos_de_la_literatura_universal.pdf) web orrialdetik berreskuratuta (2016/03/16)

Martxen Eguen kolektiboak (1997). Hemeretzi ipuin. <http://www.armiarma.eus/unibertsala/andersen/> web orrialdetik berreskuratuta (2017/03/15)

Monjas, M. T. & González, M. T. (1997). La literatura infantil y juvenil: un potencial recurso para el acercamiento a las personas con discapacidad. *Siglo cero*, 28. Bol. 174 (6). zbk. 41-46 or.

Mulero, J. & Lasarte, G. (2015). Ehun liburu mende baterako: Ipuin sendagarriak. *Ikastorratza. e-Revista de Didáctica*, 15, 119-150. [http://www.ehu.es/ikastorratza/15\\_alea/ipuin.pdf](http://www.ehu.es/ikastorratza/15_alea/ipuin.pdf) web orrialdetik berreskuratuta

Orr, R. (1996). ¿Integración o inclusión? *Entre Dos Mundos: Revista De Traducción Sobre Discapacidad Visual*, (2), 35-37

Ortíz, M. (1994). El libro adaptado a las necesidades educativas especiales. [http://sid.usal.es/idocs/F8/ART11465/libro\\_adaptado\\_necesidades\\_educativas\\_especiales.pdf](http://sid.usal.es/idocs/F8/ART11465/libro_adaptado_necesidades_educativas_especiales.pdf) web orrialdetik berreskuratuta (2017/02/10)

Ouzts, D. T. (1991). The emergence of bibliotherapy as a discipline. [http://scholarworks.wmich.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=1614&context=reading\\_horizons](http://scholarworks.wmich.edu/cgi/viewcontent.cgi?article=1614&context=reading_horizons) web orrialdetik berreskuratuta (2017/06/22)

Prater, M. A. (2003). Learning disabilities in children's and adolescent literature: how are characters portrayed?. <http://eds.a.ebscohost.com/eds/pdfviewer/pdfviewer?vid=0&sid=8977c076-633c-476d-b418-1153eb743d64%40sessionmgr4006> web orrialdetik berreskuratuta (2017/02/10)

Shapiro, A. (2014). Everybody belongs: Changing negative attitudes toward classmates with disabilities. [https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=d\\_qOAqAAQBAJ&oi=fnd&pg=PP1&dq=everybody+belongs:+changing+negative+attitudes+toward+classmates+with+disabilities&ots=GedE23PC-w&sig=TXecooPcJORKioOSIVe61DLqc8k#v=onepage&q=everybody%20belongs%3A%20changing%20negative%20attitudes%20toward%20classmates%20with%20disabilities&f=false](https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=d_qOAqAAQBAJ&oi=fnd&pg=PP1&dq=everybody+belongs:+changing+negative+attitudes+toward+classmates+with+disabilities&ots=GedE23PC-w&sig=TXecooPcJORKioOSIVe61DLqc8k#v=onepage&q=everybody%20belongs%3A%20changing%20negative%20attitudes%20toward%20classmates%20with%20disabilities&f=false) web orrialdetik berreskuratuta (2017/06/22)

Wopperer, E. (2011). Inclusive literature in the library and the classroom. The importance of young adult and children's books that portay characters with disabilities.

<http://resolver.ebscohost.com/openurl?sid=EBSCO:edb&genre=article&issn=10949046&ISBN=&volume=39&issue=3&date=20110101&spage=26&pages=26-33&title=Knowledge%20Quest&atitle=Inclusive%20Literature%20in%20the%20Library%20and%20the%20Classroom.&aulast=Wopperer%2C%20Emily&id=DOI> Web orrialdetik berreskuratuta (2017/06/12)

Wyatt, A. (2010). A portrayal of disability in children's fiction: the availability and propoton of such resources in public libraries. [http://dagda.shef.ac.uk/dispub/dissertations/2009-10/External/AWyatt\\_WYATT\\_090125100.pdf](http://dagda.shef.ac.uk/dispub/dissertations/2009-10/External/AWyatt_WYATT_090125100.pdf) web orrialdetik berreskuratuta (2017/06/12)



### 5.3. Aurkitutako elbarritasunak barneratzen dituzten ipuinen bibliografia

- Baye, E. (1987). *Seis puntos aparte*. Barcelona: Aliorna S.A. (Itsutasuna)
- Carrier, I. (2010). *El caso de Lorenzo*. Barcelona: Juventud (Elbarritasunen bat dakartzan arazoak irudikatzen duen ipuina)
- Coates, J. (2005). *Un arco iris en la oscuridad*. Barcelona: Juventud (Itsutasuna)
- Cottin, M. (2008). *El Libro negro de los colores*. Barcelona: Libros del zorro rojo. (Itsutasuna)
- Ely, L. (2004). *Cuidando a Louis*. Barcelona: Serres S.L. (Autismoa)
- Hortigüela, F. (2003). *Colorines*. La Galera. (Itsutasuna)
- Jensen, V. A. (1977a). *¡ A que no me pillas!*. Dinamarca: AiO-Tryk & Storm & Co. (Itsutasuna)
- Jensen, V. A. (1977b). *¿Qué ese eso?*. Dinamarca: AiO-Tryk & Storm & Co. (Itsutasuna)
- Martínez y Vendrell, M. (1998). *Hablemos de ruidos y silencios*. Barcelona: Destino (Gortasuna)
- Millman, I. (2000). *Moses goes to school*. Nueva York: Farrar Straus & Giroux (Gortasuna)
- Sobrino, J. (2007). *¿Qué le pasa a Lucia?*. Valencia: Tándem (Autismoa)
- Taboada, A. (2006). *Sofía, la golondrina*. Madrid: SM (Itsutasuna)
- Taboada, A. (2008). *Lola la loba*. Madrid: SM (Elbarritasun fisikoa)
- Zubizarreta, P. (2006). *Arroza eta tinta*. Donostia: Erein (Itsutasuna)